

2008ko abenduaren 23an UDALBATZAK EGINDAKO BILKURA OHIZKOAREN AKTA.

10.Zk.

Aiako Udaletxeko batzar aretoan eta egun honetako arratsaldeko 19:0tan, Udalbatzarra bildu da, idazkari-kontuhartzailea bertan egonik.

Alkate Lehendakari jaunak zuzendu du bilera eta bertara ondoko Udalkideak agertu dira:

LEHENDAKARIA: IGOR ITURAIN IBARGUREN jauna

ZINEGOTZIAK :

- 1.- MARIA JESUS ARRUABARRENA ESNAL anderea
- 2.- MAITANE ARRILLAGA ALDALUR anderea
- 3.- ANDER ARRILLAGA ALBENIZ jauna
- 4.- MARI KARMEN EGURZA AGIRRE anderea
- 5.- ANTXON GOMEZ LORENTE jauna
- 6.- NAIARA ESNAL HUEGUN anderea
- 7.- BITTOR SANCHEZ MENDIZABAL jauna

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA: ITZIAR AZURTZA-SORRONDEGI anderea

Lehendakari jaunak hala adierazita ekitaldiari hasiera eman eta ondoren azaldutakoa gertatu eta erabaki da:

1.- Aurreko akta onartu (azaroak 5)

Idazkari-kontuhartzaileak idatzi duen akta laburbildu du idazkariak berak. Batzarkideek adostasunez onartu dute azaroak 5eko udalbatzaren aktak.

2.- 2008ko aurrekontuaren bigarren kreditu aldaketa

Ez da gai hau aztertu.

3.- Jauregi lokala taberna-jatetxe erabilerarako alokairuan lagatzeko esleipena onartu

Idazkari-kontuhartzaileak adierazi duenez Kontratazio mahaia abenduaren 10an bildu zen eta honako proposamena luzatu zion Udalbatzari, hitzez-hitz kontratazio mahaiaren bilera aktan ageri den moduan :

"Lizitatzailleak ekarri ditu pleguetako laugarren puntuan, eskatutako agiriok: lehenik, NAN agiria, bigarrenik, zerga betebeharrak zuzen bete dituenaren Foru Aldundiko Ogasun ziu-tagiri eta hirugarrenik, pleguetan jasotako prezioa (hots,

551,30.-euro – BEZ kanpo-) onartzen duenaren adierazpen orria. Dena den, falta zaio Memoria, non adierazi behar baitzuen antzeko jardueretan duen esperientzia, lokaleko hobekuntzak eta irekiera egutegi zein ordutegia.

Kontratazio mahaiak ontzat eman du aurkeztu den eskaintza bakarra, alegia, Jose Ignacio Egurza Aguirre jaunarena. Hala ere, Memoria ekarri beharra dagoela iritzi diote, zerbitzu teknikoek ez baitute, gainerakoan, pleguetan ezarritako esleipen irizpideen balorazio zein puntuaketarik egiterik, eta horretarako, lizitatzaileri bost egun natural ematea erabaki dute mahaikideek aho batez, gerora, Udalbatzak azter dezan.

Ondorioz, kontratazio mahaiak proposamen egin dio Udalbatzari Jose Ignacio Egurza Agirre jaunaren aldeko esleipena egin dezan, Gozategi enparantza 9an dagoen " Jauregi" izeneko lokala alokairuan lagatzeko, taberna-jatetxe jarduera erabilerarekin eta beti ere, lizitatzaileri Memoria ekarri gero eta honi egoki iritziko balio Udalbatzak. "

Lizitatzaileriak Memoria orri bat aurkeztu zuen 2008ko abenduaren 15ean. Batzarkideek Memoria aztertu dute. Bertan aipatzen denez, egunero irekiko da taberna (astelehenetan ezik) 9:30-24:00 ordutegiarekin eta oporrak direla eta, apirillean zein azaroan aste pare bat itxiko dute lokala. Bestalde, Juan Ignacio Egurza jaunak, azken urteotan erakutsi duen lan gaitasuna eta prestutasuna gogoan izan dute, aurrerantzean udal lokalean taberna-jatetxe jarduera bidera dezan.

Alkateak, azkenik, alokairu kontratuaren ezaugarriak gogorarazi ditu, Udalbatzak azaroaren 5ean onartu zituen pleguetara atxikiz, labur-labur. Doi-doi, hauexek:

- hileroko errenta: 551,30.-eurokoa (BEZ kanpo), bigarren urteaz geroztik , hau da, 2.010 urtetik aurrera, Kontsumo prezioen indizearen arabera egokituko dena;
- epea: bost urtekoa – 2009 urteko urtarrilaren 1tik aurrera - ;
- bermeak: 4.000.-euroko behin-betiko fidantza aurkeztu beharra, lokalaren txukuntasun baldintzak eta kontratuaren epea errespetatzeko berme gisa.

BOZKETA:

- Alde: denak (8 bozka) (Igor Iturain Iburguren jauna, Maria Jesus Arruabarrena Esnaola anderea, Maitane Arrillaga Aldalur anderea, Ander Arrillaga Albeniz jauna, Mari Karmen Egurza Agirre anderea, Antxon Gomez Lorente jauna, Naiara Esnal Huegun anderea, Bittor Sanchez Mendizabal jauna)
- Aurka: 0 bozka
- Abstentzioa: 0 bozka

AKORDIOA: Aiako Udalbatzak, aho batez, erabaki du Gozategi enparantza 9an dagoen ondare-ondasun izaerako udal lokala, " Jauregi" izenez ezagun dena, alokairuan lagatzea Jose Ignacio Egurza Agirre jaunari taberna-jatetxe jarduera bidera dezan, bost urteko epean, 640 .-euroko hileroko errentarekin eta Udalbatzak 2008ko azaroaren 5ean onartutako pleguetan ezarritako baldintzapean.

4.- Aiako hirigintza plangintzaren Arau Subsidiario- Berrikuspen agiriko " Orioko arraun elkarte" eta " Zudugarai" eremuen etenaldia altxatzeko eskaria onartu, "Thalassa" eremu barruko kalifikazio aldaketa eta azterketa finantz-ekonomikoa jendaurrean jartzea onartu

Alkateak honako adierazpenak egin ditu Foru Aldundiko Diputatu Kontseiluak 2007ko azaroaren 6an etenda utzi zituen " Orioko Arraun Elkarte" eta "Zudugarai" eremuen hirigintza antolakuntza dela eta. Nahiz eta, Udalbatzak iada 2008ko urriaren 8an gogorarazi zion Foru Aldundiari etenaldia kentzeko, ez du nahikoa motibatua ikusi eskari hura eta hori dela eta, berriz ekarri da gai hau batzarrera.

"Orioko arraun elkarte"ri dagokion 20. hirigintza-eremua etenda uztearen arrazoi nagusia, Espainiar estatuko ingurumen ministeritzako itsasertz sailak eskatutako zenbait baldintza bete beharrean zetzan. Eremu honi dagokion fitxa partikularrean espreski jaso da aipamen bat baldintza hau jasoz, hain zuzen ere, fitxako " eraikuntza baldintzak" atalean bigarren paragrafoan, izan ere, bertan, itsasertz legearen 32.1 artikulua bereziki azpimarratu baita eta eraikin berriek "itsasertz zein itsasoaren jasangarritasun zuzendaritza nagusiak" emandako baimena eskuratu beharko dutela oroitarazi baita. 2008ko urriaren 8an, iada, Udalbatzak fitxa hau onartu zuela gogoan izan du idazkariak, baina Foru Aldundiaren eskariz, onarpen hura berrestea dagokio oraingoan Aiako Udalbatzari.

" Zudugarai" 22. hirigintza eremua etenda utzi zuen Foru Aldundiak hiru arrazoi hauek zirela medio:

- a) Jarduera eremuaren azalera handitzea, lurzoru urbaniza-ezinaren kaltetan, ez da beharrezkotzat jo.
- b) Ingurumen eragin azterketa plangintza orokorrean egitea egokiagotzat iritzi dio.
- c) Urola Kostako lurralde plan partzialak ez du inguru horretan jarduera ekonomikorako gunerik aurrikusi.

Honen aurrean Alkateak honako zioak plazaratu ditu, Udalbatzak aintzat har ditzan:

- a) Azalera handitzearen beharra dela eta, honako argudioak, laburbildu ditu:
 - Pagoeta parkerako sarrera izanik, leku estrategikoa da
 - Egungo egoera kaskarra da, besteak beste, legez-tatu gabeko jarduerak baitaude, ibilgailuen trafikoa arriskutsua baita eta ingurumen arloko trabak eragiten baitira.
 - Udalak ez du, hala ere, baliabide ekonomiko eta industri-lurzoru nahikoa bertako jarduerak lekuz aldatzeko udal-erri barruan, eta, argi izanik gauzak bere horretan uztea ez dela irtenbidea, ondorioz, honako konponbideak proposatu du, besteak beste, hirigintza antolakuntzari begira:
 - industrigune barruko bideak berdefinitu
 - eraikigarritasuna handitu, jarduerak hobeto antolatuz

b) Ingurumen eragin azterketa, plangintza orokorrean integratu beharraren baldintza dagoeneko bete dagoela uler daiteke, izan ere, gaur egun Arau Subsidiarioen Berrikuspen agiriarekin batera onartu den ingurumen eragin azterketa bateratuak, Angel Lertxundi teknikariak izenpetutakoak, gai hau aztertua baitu iada eta jaso baititu eremu honetarako neurri zuzentzaileak (101 orrialdean).

c) Urola Kostako lurralde plan partzialak ekonomi jarduerarako gunerik aurrikusi ez badu ere, jarduera ekonomikoen lurralde plan sektorialak, ordea, garapen orekatu edo ertain gisa sailkatu du, eta ondorioz, Aiako udalerrrian 10 hektareako zabalera duen industri-lurzorua aurrikustea ahalbidetzen du.

Alkateak, azalepenekin aurrera jarraitu du, " **Thalassa**" eremuari dagokion fitxa 30 egun naturalez jendaurrean jarri behar dela adieraziz, izan ere, Foru Aldundiko Errepide sailak azken orduan jakinarazitako irizpideen ondorioz, barnekalifikazioan aldaketa bat egin behar baita.

Azkenik, hirigintza plangintzako Berrikuspen agiri osoari buruzko " **Azterketa finantz-ekonomikoa**" laburbildu du, jarraian jaso den eran. Agiri hau jendaurrean 30 egun naturalez jartzea derrigorrezko dela aditzera eman du, gainera.

1.- Helburu nagusia: lurraldearen egitura orokor eta organikoari dagozkion urbanizazio obrak egiteak dakartzan ondorio ekonomikoak aztertzean datza. Honela, agiri honek espreski aipatu ditu, batetik, zenbateko ekonomioa eta bestetik, finantziario iturriak. Dena den, diru kopuruak gutxigorabeherakoak dira

2.- Lurraldearen egitura orokor eta organikoari buruzko urbanizazio obrak deskribatu dira motzean. Hauek sistema orokorrak dira, gehienak lurzoru urbanizagarri sektorizatuekin batera exekutatu dira. Egun dauden azpiegiturak eta exekuzio fasean daudenak jasotzen dira soilik

2.1.- Zerbitzu azpiegituren zerrenda honakoa da.

2.1.1. Herrigune-Andatza arteko euri-ur eta ur zikinen arazketa sarea (942.000.-euro) eta ur hornikuntza sarea (250.000.-euro)

2.1.2. Andatza-Santio arteko euri ur eta ur zikinen arazketa sarea (2.700.000.-euro)

2.1.3. Ur hornikuntza Ibai-Eder ur-biltegitik udalerrera (2.000.000.-euro)

2.1.4. Finantziario iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia eta Ur kontsortzioa.

2.2.- Ekipamendu eta gune libreen sistema orokorra: Dagoeneko eginak daude honako hauek:

2.2.1. Gune libreen sistema orokorra: Andatza (320.000.-euro)

2.2.2. Pagoeta Natur Parkea: Gipuzkoako Foru Aldundia da finantziario-iturria (600.000.-euro)

3.- Komunikazio azpiegiturak: Orioko sahiesbidea eta trenbidearen desbideratzea dira, eta bi fase ezberdin litezke:

3.1. Mota-Ubegun tartea. Aurrekontua 15.228.557,90.-eurokoa da.

3.2. Arraun elkartetik "Txanka"-ra: Gipuzkoako Foru Aldundiak finantziatua dago (21.847.306,36.-euro).

4.- Hirigintza eremuak

4.1. Bitarteko garapen planak behar dira eremu gehienetan urbanizatzeko eta eraikitze prozesua abiatu aurretik, eta plan horiek zehaztuko dute eremu bakoitzaren bideragarritasun ekonomikoa.

4.2. Armendi gain eremuaren urbanizazio gastuak 2.500.000.-eurokoak dira

- 4.3. Santio erreka auzoan errepide hobekuntzak Udalak ordaindu ditu zati batean (291.000.-euro) eta beste zati batean Foru Aldundiak (186.000.-euro).
 - 4.4. Elkano auzoko garapen berriak 600.000.-euroko
 - 4.5. Urdaneta auzoko garapen berriak 545.000.-euroko
 - 4.6. Industri gunetan udalak dirua aurreratu du
- 5.- Ondorioak: Bideragarritasuna bermatua dagoela esan daiteke.

BOZKETA:

Lehenik, Gipuzkoako Foru Aldundiari Orioko arraun elkarte eta Zudugarai hirigintza eremuen etenaldia altxa dezan eskatu:

Alde: 5 bozka

Aurka: 0 bozka

Abstentzioa: 3 bozka

Bigarrenik, azterketa finantz-ekonomikoa eta Thalassari dagokion hirigintza eremuaren fitxa 30 egunez jendaurrean jarri:

Alde: 5 bozka

Aurka: 0 bozka

Abstentzioa: 3 bozka

AKORDIOA:

Aiako Udalbatzak 2008ko abenduaren 23an, gehiengoz, honako erabakiak hartu zituen, Aiako hirigintza plangintzako Berrikuspena dela eta:

Lehenik, Foru Aldundiko Diputatu Kontseiluari eskatzea 2006ko azaroaren 6an etenda gelditu ziren " Orioko Arraun Elkarte" eta " Zudugarai" eremuen hirigintza antolakuntza behin-betiko onar dezan, etenaldia altxatuz.

Bigarrenik, " Thalassa" eremuari dagokion fitxa jendaurrean jartzea 30 egun naturalez, Foru Aldundiko Errepide sailaren irizpideen ondorioz egin beharreko aldaketa dela eta.

Hirugarrenik, hirigintza plangintzako Berrikuspen agiri osoari buruzko " Azterketa finantz-ekonomikoa" onartu eta jendaurrean jartzea 30 egun naturalez.

5.- Udalaren jabetzako 112 m2-ko lursailaren trukea Sarasua eta udala artean onartu

Idazkariak gogora ekarri du Patxi Sarasua Zumeta jaunak, 2008ko urriaren 31an idatzi bat aurkeztu zuela udal bulegoetan eskatuz bere jabetzako zen 218 metro karratudun azalerako lurzati bat, 865 finka erregistralaren baitan dagoena udalak bere gain har dezan, bertan, azpiegitura publikoek baitute pasabide lur-azpitik.

Interesdunak bestalde plazaratu du " Olaskoegia-II-3" izeneko sektorean, exekuzio unitateari dagokion borondatezko birpartzelazio proiektuaren arira, udalak "ñ" hizkiz identifikatutako 10.627 m2-ko lur eremua eskuratu zuela, gune berde edo libre erabilerara xede-emanda.

Sarasua jaunaren eskaria zera da, Udalak 218 metroko lurzattia eskuratu dezala azpiegitura publikoen lur-azpiko pasabide baita eta horretarako 865 finka erregistraletik 218 metro horiek segregatu ditzala.

Olaskoegia- Arratola eremuan dauden lurjabe zein etxejabeei komeni zaie bertako urbanizazio lanak egokiro bukatu daitezela. Horregatik, egoki iritzi diote Udalarekin adostasun batera heltzeari, Udalak azpiegituren lurzattia bereganatzearen truke, bertako lurjabeek beste hainbesteko azalera duen lurzattia berreskura dezatela erabilerara pribatiboa eman diezaioten.

Dena den, hau egiteko modu egokiena, trukean lur-zattia jasoko duen lurjabearekin zuzenean eragiketa egikaritzea litzateke, Idazkariak ohartarazi duenez. Horregatik, interesdun zuzenak agiriak ekarri bitartean ez du udalak formalizatuko eragiketa hau.

BOZKETA: Alde: 8 bozka

AKORDIOA: Udalbatzak, aho batez, onartu du trukea ontzat ematea baina beti ere udalaren lursaila eskuratuko duen interesdunarekin gauzatzea zuzenean eskritura.

6.- 2009 urterako aurrekontu bateratuari hasierako onarpenera eman (Udala zein Aia Lantzen S.A.-renari), Lanpostu zerrenda eta plantilla organikoa barne.

Alkateak Udalaren aurrekontu propioaren berri eman du, lehenik. Honela, sarrerak 3.074.587,23.-eurokoak aurrikusi direla aipatu du, modu honetan sailkatuak, labor-labor :

- 1 kapitulua: zerga zuzenak (ondasu higiezin,ibilgailu,ekonomi jarduera,hirilur balio handitzea): 475.001.-euro
- 2. kapitulua: zeharkako zergak (eraikuntza eta obra zerga): 180.000.-euro
- 3. kapitulua: tasak (lurzoru zein instalazio publikoak erabiltzeagatik eta zerbitzuak eskaintzeagatik): 270.763.-euro
- 4. kapitulua: transferenzi arruntak (Foru Aldundi zein Eusko Jaurlaritzako diru ekarpen orokorrak): 1.355.045,00.-euro.
- 5. kapitulua: ondare sarrerak (alokairu errentak,igerileku ustiaketa, banku interesak): 17.184.-euro.
- 6. kapitulua: inbertsio errealak besterentzea (hirigintza %10eko lagapena,Mataderi zaharra): 30.001.-euro
- 7. kapitulua: kapital trasferentziak (Foru Aldundi, Eusko Jaurlaritzaren zein Urkome-Mendikoi diru ekarpenak proiektu zehazetarako): 610.056.-euro
- 8. kapitulua: finantza aktiboak(pertsonal aurrerakinak, diruzaintza-ondarrak): 2.401,00.-euro

- 9.kapitulua: finantza pasiboak (epe luzeko mailegua): 134.135,68.-euro

Jarraian, aurreko 3.074.586,23.-euroak zein gastuak gauzatzeko erabiltzea aurikusi den laburbildu du, ondoren jaso den gisara:

- 1. kapitulua: pertsonal funtzionari zein langileria gastuak: 732.731,30.-euro.
- 2. kapitulua: eraikin zein makinaria mantenu-gastuak : 674.116,52.-euro.
- 3. kapitulua: finantza gastuak (mailegu interesak): 0.-euro
- 4. kapitulua: transferentzi arruntak (erakunde zein partikularrentzako diru laguntzak, besteak beste, Mankomunitate,Eudel, Udalbide,Kooperazio-Elan,eskolak, Goiz-Argi, jai batzordea,kirol elkarteak, famili laguntzak, euskara sustatzeileei, turismo ekintzetarako): 435.476,86-euro
- 6. kapitulua: inbertsioak: 982.205,00.-euro
- 7. kapitulua: kapital transferentziak : 250.056,55.-euro
- 9. kapitulua: finantza pasiboak (mailegu amortizazioa): 0.-euro

Bestalde, Aia Lantzen S.A.-k proposatutako aurrekontua ere izan du aztergai eta horri buruz honako atalak azpimarratu ditu nagusiki. Sarrerak, 1.807.935,00.-eurokoak, honako iturrietarik eskuratuko direla azaldu du:

- 6. kapitulua: inbertsio errealeen besterentzea : 1.336.376,00.-euro
- 7. kapitulua: kapital transferentzia 430.000,00.-euro
- 9 kapitulua: finantza pasiboa : 41.559.-euro.

Gastuak bestalde honela banatuko direla gogorarazi du:

- 2. kapitulua: ondasun eta zerbitzu gastuak : 70.022.-euro.
- 3. kapitulua: finantza gastuak: 18.000.-euro
- 6. kapitulua: inbertsio errealak : 1.219.913,00.-euro
- 9. kapitulua: finantza pasiboa: 500.000,00.-euro

Lanpostu Zerrenda eta plantilla organikoa aurrekontuarekin batera aurkeztu ditu azkenik Idazkariak, jarraian jaso moduan.

KARRERAKO FUNTZIONARIAK

LANPOSTUA	LANPOSTU KOPURUA	TALDEA	EGOERA
IZAERAKO NAZIONALEKO HABILITAZIO ESKALA Idazkaritza Azpieskala Idazkari-Kontuhartzailea	1	A	J
ADMINISTRARITZA OROKORREKO ESKALA Administrari Azpieskala Administrari Laguntzaileak	2	C	J
Menpeko azpieskala Ordenantza jakinerazlea	1	C	J
ADMINISTRARITZA BEREZIKO ESKALA Zerbitzu berezien azpieskala Zerbitzu anitzetako Peoia. Urak	1	D	J
Zerbitzu anitzetako Peoia-Lurperatzailea	1	D	J
Operaria	1	E	J

LAN KONTRATUDUN BEHARGINAK

LANPOSTUA	LANPOSTU KOPURUA	LANBIDE	ASIM. TALDEA	EGOERA
Gizarte-laguntzailea	1	2	B	F
Liburutegiko laguntzailea	1	7	D	J
Ekintza anitzetako 2 peoi	2	7	E	F eta A
Garbitzaileak	3	10	E	F
Etxez-etxeko laguntzaileak	4	8	E	F
Aparejadorea	1	2	B	J

J = Jabetza F= Finkoa
H = Hutsik A = Aldi baterako

Gomez zinegotziak aurkeztutako emendakinak direla eta, honakoa zehaztu du Alkateak:

- 1) Tabernetan kultur ekintzak gauzatzeko proposamena: onartu da
- 2) Altzerri kobazulo inguruetan lursailak erosteko proposamena: ez da onartu, argudiatuz, Eusko Jaurlaritza zein Foru Aldundiarekin elkarlanean hitzartu behar litzatekela ekimen hau.
- 3) Memoria historikoa Aia herrian berreskuratzeko partida espresu bat aurrikusteko proposamena: ez da onartu
- 4) Inkesta sozio-linguistikoa egiteko proposamena: ez da onartu
- 5) Euskal prentsari 12.000.-eurotako dirulaguntza luzatzeko proposamena: onartu da, baina, ohartarazi du, irizpide batzuk finkatzea komenigarria litzatekela etorkizunari begira.
- 6) Euskararen nazioarteko eguna dela eta ospakizunak burutzeko 2.000.-euroko partida bat aurrikusteko proposamena: onartu da.
- 7) Eskualdeko telebista abian jartzeko dirulaguntza partida bat jartzeko proposamena: ez da onartu, gai hau sakondu egin behar delakoan.
- 8) Gazteentzako lokal bat atontzeko proposamena: ez da onartu, ez baita beharrik nabari.
- 9) Etxebizitza sozialak egiteko dirulaguntza aurikuspen proposamena: ez da onartu, helburua txalogarria izan arren, baliabide ekonomikoak nondik eskuratuko diren ez baitago aztertua.
- 10) Udalbiltzari zuzendutako dirulaguntza: ez da onartu
- 11) Aiako padura dela eta, ikerketak gauzatzeko partida bat irekitzeko proposamena: ez da onartu
- 12) Landare inbaditzaile edo erasotzaileen kontrola burutzeko partida aurrikusteko proposamena: onartu da

Idazkariak gaineratu duenez, izapidetzari dagokionez, bai hasierako onarpen akordioa bai espedientea jendaurrean egongo dira 15 lan-egunez Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarri eta biharamunaz geroztik, Udal bulegoetan, jarraian adierazitako baldintzetan. Alegia:

- a) Erreklamazioa aurkezteko legitimazioa izango dutela 21/2003 Foru Arauak 17. artikuluan aipatutakoek .
- b) Erreklamazioak aurkezteko lekua Udaletxeko Erregistroa eta 30/92 legeko 38 artikulua jasotako tokiak izango direla
- c) Aurkatzeko arrazoiak 21/2003 Foru Arauak 17. 2 artikuluan araututakoak izango dira.
- d) Erreklamazioak Udal Batzarrari zuzendu behar zaizkiola.

Informazio publiko aldia igaro ondoren, erreklamazio ezean, hasierako onarpen akordioa behin-betikotzat jo eta ondorioz, Aurrekontu bateratu hau behin betiko onartua izan dela ulertuko da, beste erabaki espresurik hartu beharrik gabe. Eta Aurrekontu bateratu honen zein lanpostu zerrendaren laburpena Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira azkenik. Guzti hau Udal Aurrekontuen 21/2003 Foru Arauak – abenduaren 19koak- xedatutakoari jarraituz.

BOZKETA (Aurrekontua, osotasunean, bozkatu da, ez kapituluka edo sailka):

- Alde: 5 bozka
- Aurka: 3 bozka
- Abstentzioa: 0 bozka

AKORDIOA: Batzarkideek gehiegotz onartu dute 2009 urterako Aurrekontu Bateratuari hasierako onarpena ematea, hots, Udalaren aurrekontu propioari ezezik Aia Lantzen S.A.-renari, Lanpostu zerrenda eta plantilla organikoa barne.

7.- Ignacio Uria jaunaren erahilketa dela eta, adierazpena onartu

ETak Azpeitian burutu duen Ignacio Uria jaunaren erahilketa dela eta, Alkateak udalaren izenean adierazpen bat egitea proposatu du, izan ere, Uria jauna " Altuna y Uria" izeneko enpresako kide baitzen, eta enpresa honen egoitza bat baitago Aiako udalerrian kokatua. Adierazpen horretan Uria jaunaren senitartekoei doluminak agertzeaz gain, ekintza honek Euskal Herriari, eta bertako bizikidetzari eragiten dion kaltea azpimarratu nahi izan du, eta giza duintasun ikuspegitik, inori bere bizitza kentzea deitoragarria dela plazaratu du.

Gomez jaunak esan du senitartekoen minarekin bat egiten duela, eta baita sufrimendu-egoera guztiekin ere, eta indarkeria-adierazpen oro dela giza duintasunaren aurkakoa (baita torturak ere). Hala ere, oroitarazi du bere adierazpen askatasuna oso mugatua dagoela, izan ere " formula" jakin batzuetara egokitzen ez bada, zenbait ideia " delitutzat" jotzeko joera nabaria baita.

BOZKETA: Alde: 5 ; aurka: 0 bozka.

AKORDIOA: Aiako Udalbatzak, gehiegotz, onartu du Uria jaunaren erahilketa dela eta, adierazpen bat egitea, senitartekoei doluminak agertzeaz gain, ekintza honek Euskal Herriari, eta bertako bizikidetzari eragiten dion kaltea azpimarratuz eta giza duintasun ikuspegitik, inori bere bizitza kentzea deitoragarria dela plazaratuz.

8.- Udal egoitzaren eraikinaren barne eraberritze obra proiektua onartu

Alkateak jakinarazi du espainiar estatuaren gobernu ministrari kontseiluak 2008ko azaroaren 28an udal erakundeei inbertsioak egiteko dirulaguntzak aurrikusi dituela. Eta horren arira, udalaren egoitza eraikina eraberritzea komenigarri dela aipatu du. Horregatik, udalaren aholkulari lanak egiten dituen Gaizka Perosterena arkitektuari oinarritzko obra proiektua idaztea enkargatu zaio.

BOZKETA:

- Alde: 5 bozka (Igor Iturain-Ibarguren jauna, Maria Jesus Arruabarrena Esnaola anderea , Ander Arrillaga-Albeniz jauna, Mari Karmen Egorza-Agirre anderea, Naiara Esnal-Huegun anderea);
- Aurka: 0 bozka;

- Abstentzia: 3 bozka (Maitane Arrillaga Aldalur anderea, Antxon Gomez-Lorente jauna, Bittor Sanchez-Mendizabal jauna)

AKORDIOA: Udalbatzak, gehiengoz, onartu du Aiako udal egoitza eraikinaren eraberritze obra proiektua, Gaizka Perosterena Arregi arkitektu jaunak idatzitakoa, estatuko gobernuaren ministrari kontseiluak onartutako udal inbertsioen fondoan dirulaguntza jaso ahal dezan.

9.- Talde mistoan barneratzeko zinegotzien eskaria

Maitane Arrillaga Aldalur andereak eta Bittor Sanchez Mendizabal jaunak, talde mistoan barneratzeko eskaria luzatu diote Udalbatzari.

BOZKETA: Alde: denak

AKORDIOA: Udalbatzak, aho batez, onartu du Arrillaga-Aldakur anderea eta Sanchez-Mendizabal jauna talde mistoan sartzeko eskaria.

10.- Galdera-eskariak

Ez daude.

Bileran esan eta onartutakoak jasota gera daitezen, idazkariak idatzi eta bertaratutakoek onartu eta izenpetu dute, Aian 2009ko apirilaren 16an.

IGOR ITURAIN IBARGURENek

MARIA JESUS ARRUABARRENA ESNALek

MAITANE ARRILLAGA ALDALUREk

ANDER ARRILLAGA ALBENIZEk

MARI KARMEN EGURZA AGIRREK

ANTXON GOMEZ LORENTEK

NAIARA ESNAL HUEGUNEk

BITTOR SANCHEZ MENDIZABALEk

Idazkari-kontuhartzaileak.

